



ERMUKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE ERMUA

19. Ordenantza Fiskala

Herri bidean bertan behera oker edo behar ez bezala utzitako Ibilgailuak kentzeagatiko tasa

I. XEDAPEN OROKORRA

1. ARTIKULUA

Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Ogasunak araupetu dituen abenduaren 16ko 2005/9 Foru Arauko 21. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, Ibilgailuak Kentzearen ziozko Tasa ezarri da. Tasa hori ibilgailuak herri-bidean bertan behera utzita edo hiri-aldeetan eragozpen larriak sortzeko moduan aparkaturik daudenean sortzen da, eta kentzen diren ibilgailuak interesatuek jaso arte zaintzeagatik.

II. ZERGA EGITATEA

2. ARTIKULUA

Zerga-egitatea ibilgailuak herri-bidetik kentzeko zerbitzua egitea da. Zerbitzua egingo da baldin eta ibilgailuaren gidariak edo jabeak, ibilgailua herri-bidetik kentzeko agindua jaso arren, neurria eragin duten akatsak zuzentzen ez baditu, edota ibilgailua herri-bidean bertan behera edo txarto aparkatuta uzten badu.

III. SUBJEKTU PASIBOA

3. ARTIKULUA

Herri-bidetik kentzen diren ibilgailuen jabeek ordenantza honetan araupetutako tasa ordaindu beharko dute, ibilgailua herri-bidetik kentzearen zioa martxoaren 2ko 339/1990 Legegintzako Errege Dekretuaren 71. artikuluan aurreikusitako urratzea denean (dekretu horren bidez trafikoari, motordun ibilgailuen zirkulazioari eta bide-segurtasunari buruzko legea onetsi da), urratzeagatik ordaindu beharreko isuna gorabehera.

IV. ZERGA OINARRIA

4. ARTIKULUA

Zerga-oinarria zerbitzuaren kostuaren araberakoa da. Garraio-zerbitzuko, eguneko eta zatikiko kopuru jakinak ezarriko dira.

V. KUOTA

5. ARTIKULUA

1. Ordenantza honetan araupetutako tasaren zenbatekoa hurrengo atalean dagoen tarifyan ezarritakoa izango da. Batetik zerbitzuagatiko kuota ordainduko da, hau da, ibilgailua udal-biltegira eramateagatik edo herri-bidean mekanismo egokiaren bidez ibilgetzeagatik, eta bestetik ibilgailua biltegian gorderik edo herri-bidean ibilgeturik dagoen egun bakoitzeko edo zatikiko kuota.

2. Tasa honen tarifa honako hau izango da:

KONTZEPTUA	GARRAIOAGATIK	EDUKITZEAGATIK	IBILGETZEA
1. Motozikletak, trizikloak, motoourdiak eta antzekoak	75,00	5,05	49,00
2. Automobilak, kamionetak eta antzekoak, 1.000 kg-ra arteko tonak dituztenak.	223,00	9,25	49,00
3. Automobilak, kamionetak eta antzekoak, 1.001 kg-tik gorako tonak dituztenak. 3.000 kg arte.	223,00	9,25	54,20
4. Kamioiak, 3.000 kg-tik gorako eta gehienez 7.000 kg-ko tonak dituztenak.	432,00	14,30	54,20
5. Kamioiak eta autokarrak, 7.000 kg-tik gorakoak.	864,00	24,60	54,20
6. Bertan behera utzitako gainerako ibilgailuak.	223,00	9,25	49,00

VI. KUDEAKETA ETA ZERGA BILKETA

6. ARTIKULUA

Ibilgailu baten gidariak edo jabeak, ibilgailua herri-bidetik kentzeko agindua jaso arren, neurria eragin duten akatsak zuzentzen ez baditu, edota ibilgailua herri-bidean bertan behera edo txarto aparkatuta uzten badu, Udaltzaingoak ibilgailu hori herri-bidetik kenduko du.

7. ARTIKULUA

1. Ibilgailuaren jabea izatea frogatzen duenari eskatuko zaio tasa ordaintzeko, ibilgailuaren bila biltegira doanean, eta Udalak emandako egiaztagiria jasoko du.

2. Udaltzaingoak egiaztagiria emango dio interesatuari. Bertan gordailua egin izana eta ordaindutako kopurua agertaraziko dira.

8. ARTIKULUA

Udaltzaingoak tasa honen zioz bildutako dirua Udal Gordailuzaintzan sartuko du egunero, zerga-bilketaren egiaztagiriekin batera.



ERMUKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE ERMUA

19. Ordenantza Fiskala

Herri bidean bertan behera oker edo behar ez bezala utzitako Ibilgailuak kentzeagatiko tasa

VII. AZKEN XEDAPENA

Herri Bidean Bertan Behera Utzita edo Oker edo Behar Ez Bezala Aparkaturik dauden Ibilgailuak Kentzearen Ziozko Tasa araupetu duen Ordenantza 2026ko urtarrilaren 1ean jarriko da indarrean, behin betiko onetsi eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean 2025eko abenduaren 31ko 249. alean argitaratu eta gero, eta halaxe egongo da aldaraztea edo indargabetzea erabaki arte.